

ARRIKUZE-ARBEROA-ORTZAIZEKO OHIKO BIZILEKUA



Arkitekturen aniztasuna

« Garazi-Baigorri-Oztibarre » afixan agertzen den Nafarroa Behereko hego-ekialdeko eskualdearekin konparaturik, ez da aise eskualde honen nortasuna zehaztu eta ezagutzea.

Arrikuzeko eskualdearen ezaugarriak – Donapaleu inguruan – aski homogeneousak badira, Nafarroa Behereko mendebaldeko partea Lapurdiko, Garazi-Baigorriko edo Arrikuzeko eskualdeei lotzen duten eragin desberdinek zeharkatua da.

Nahiz ñabardura horiek ekaien oparotasunarekin eta beraz geologiarekin zerikusia duten, geologiak ez du den-dena esplikatzen ahal. Alabaina, herri berean, arkitektura erabat desberdinak aurkitzen ahal dira : batzuek zurezko atalak* dauzkate, besteak harri hutsez eginak direlarik.

Alta, desberdintasun horiek ez dituzte ezaugarri amankomunak ezkutatu behar, hauetarik lehena eta nagusia euskal gizartean etxeak dauzkan funtzioa eta zentzua izanik. Bigarren ezaugarria planoen eta bolumenen antzekotasuna da. Azken ezaugarria, zura harriaz polikinaka ordezkatzeko duen bilakaera partekatua da.



Bidarraiko 3 etxe



Etxea

Ohiko etxea ez da bakarrik aterbe bat: familiaren iraunkortasuna gorpuzten du. Alabaina, familiak eta etxeak bat egiten zuten, hainbestetaraino non etxearen izena erabiltzen baitzen etxeakoak izendatzeko.

Etxea eskualde kaskoietan arruntak diren « mokor-etxeen » familiakoa da. Mokor-etxea ezagutzen da teilatu beraren azpian, bolumen trinko beraren baitan familia-biziari ezinbestekoak zaizkion funtzioak biltzen baititu, hala nola gizakien eta abereen bizilekua, uztak eta belar-bazka erreserbak, materiala biltzeko gordegailuak...

Planoa hiru horma-artetan* antolatzen ohi da. Erdiko horma-arteak, besteak baino zabalagoa, ezkaratza* deitzen da: gela zabal bat da, ber-denboran sartzeko, banatzeko eta materiala biltzeko erabiltzen dena. Etxeko iharduerak ezkaratzaren inguruan, bai eta estaian ere banatzen dira.

Zabalkien zulatua den aitzinalde nagusiaren horma-pikoa* ekialdera begira dago. Hala, mendebaldetik etorri euri-haizeetatik babestua zen (leihoen estankotasuna segurtatzen duen beira XIX. mendean baizik ez zen hedatu baserrialdean).



Supazterra, familia-biziaren bihotzean

Zuretik harrira

Ikerketa berriek erakutsi dute harriak nola hartu duen polikinaka zuraren lekua eta nola pasa garen zurgin-etxetik, zutoin eta habe elkartuez egina, harlanduzko egituretara.

Aitzinalde nagusi anitz zurezko atalez* eginak dira. Hauen banaketa konplexua da ondoko baldintzei lotuak baitira : eraikuntzaren garaia, tokian berean erabilgarria zen harriaren kalitate eta oparotasuna.

Zurezko atalaren kalitateetarik bat arintasuna da : honi esker, gehienetan zurezko ateburu* batez estali ate zabal bat irekitzen ahal da, eta estaiaren gainditzea egitea ere posible da.

Zuretik harrira eramaten gaituen bilakaeraren amaieran, horma-pikoaren* presentzia ez da gehiago justifikatzen eta orduan etxeak lau aitzinalde berdintsu dauzka, piramide itxurako teilatu baten azpian. Beraz, ez da arraroa laborantza-erabilpenetarako mantendu familiako etxaldearen ondoan harri hutsez eraiki etxe bat ikustea, laborantza-ustiapenari lotu behartzeetatik askaturik, eta gaurko gustuari egokiturik.



Ortzaize eta Arberoa

Zurezko atalezko* eraikuntzak harlanduzko eraikin sendoen ondoan aurkitzen dira.

Ortzaizeko eskualdean, hareharrizko* azaleratzeen kalitateak eta oparotasunak eraikitzaileak bultzatzen dituzte hareharria erabiltzera baoen markoetarako, zurezko atal baten kargak zurezko habe batekin aski duenean ere. Harrien kolore bizietatik efektu estetiko bat lortzen da, bereziki harriak aldizkatzen direnean.

Arberoako eskualdeak ez baditu Ortzaizeko ekaiek dauzkaten kolore dirdiratsuak, pikor fin-fineko harri bat dauka, lantzeko ezin hobe. Iholdiko herri barnean, grabatuak edo zizelkatuak diren ateburu serie bikain bat aurkitzen da, hauetan izkribu eta apaindurak nahasten baitira.



Arrikuzeko Eskualdea

Donapaleu inguruan kokatu Arrikuzeko eskualdeak nortasun desberdin bat garatzen du, honen arkitektura anitzez ere xumeagoa baita.

Eskualdea laborantzaren aberastasunagatik ezagutua bada ere, ez du beste eskualdeek daukaten ekaiei aniztasuna. Bertan harlandua bakana da eta zurezko marko anitz aurkitzen dira.

Eraikin gehienak motzorrak dira, estai bakar batekin isurialdearen azpian. Aski ttipiak baitira, eraikin gehigarriak dituzte patioaren hegian.

Estaia, gehienetan zurezko atalez* egina, ateragune azkar batez seinalatzen ohi da, habexken buruek eutsirik eta bi besok* deskargaturik. Zurek paretarekin bat egiten dute, paretaren xuri berak usu gisuztatuak baitira.



Hiztegia

- Besoa :** zurezko pieza zeiharra, habe baten deskargatzeko balio duena.
- Gisuztatzea :** uretan disolbatu gisua, paretak babesteko balio duena.
- Ezkaratza :** etxeko ate nagusia irekitzean aurkitzen den erdiko gela zabala. Ohiko etxearen bihotza baita, etxea ezkaratzaren inguruan ordenatu eta antolatua da.
- Hareharria :** harri sedimentarioa, kolore beroak dauzkana (horia, gorria).
- Ateburua :** harrizko edo zurezko pieza horizontala, bao, ate edo leiho baten gainean dagoena.
- Mokor-etxea :** teilatu beraren azpian etxeko iharduera guziak aterbetzen dituen antolaketa modua.
- Horma-pikoa edo murru-murtxila :** triangeluar itxurako pareta, teilatuaren bi isurialdeen itxurari jarraitzen zaiona.
- Zurezko atala :** zurezko zutoin-egitura duen pareta edo trenkada. Tarteak harlanduzko obra mehe batez hornituak dira.
- Horma-arte :** aitzinaldearen zatiketa bertikala, honen ezaugarria irekiduren gainezarpena baita. Usaian, horma-piko moduko aitzinalde nagusiak bere hiru horma-arteak simetrikoki antolatzen ditu ezkaratzeko atearen inguruan.
- Teila arabiarra :** Loireko hegoaldean eta herrialde mediterraneoetan aurkitzen den teila arrunta. Isurialde apaleko teilatuei egokia baita, eraikinak zabaleran handitzeko aukera ematen du.

Irakurri beharreko zenbait liburu

BIDART Pierre, COLLOMB Gérard, Pays aquitains, Bordelais, Gascogne, Pays basques, Béarn, Bigorre, in CUISENIER Jean (dir.), L'architecture rurale française : corpus des genres, des types et des variantes, Berger-Levrault, 1980

DUVERT Mikel, BACHOC Xemartin, Charpentiers basques et maisons vascones, Bayonne, Bulletin du Musée Basque, Hors série 2001.

DUVERT Mikel, « Etxea, plus qu'une architecture », in Dictionnaire thématique de culture et civilisation basques, Piminetos, 2001

LAUBURU, Etxea ou la maison basque, Les cahiers de la culture basque, 1980

LOUBERGÉ Jean, La maison rurale en Pays basque, 63340 Nonette, Ed. CREER, 1981, réed. 2002

MOREL DELAIGUE PAYSAGISTES, Atlas des paysages en Pyrénées-Atlantiques, Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques/Préfecture des Pyrénées-Atlantiques, 2003.

SICA Habitat rural du Pays basque, PACT du Pays basque, Le bâti ancien en Pays basque, EDF/PACT, 1981